



IRAKASLEEN IRAKAS-JARDUERAZ IKASLEEK DUTEN IRITZIARI BURUZKO INKESTA

*Irakasleen iritziari buruzko inkesta
nola egin gela birtualean*



Ikasleentzako erabiltzailearen eskuliburua

2024/2025 Ikasturtea

SARRERA


Eraldaketa Digitalaren eta Komunikazioaren Errektoreordetzak proiektu bat abian jarri du **Ikasleen Iritziari buruzko inkestaren prozedura digitalizatzeko**.

Proiektu honen helburua bikoitza da, batetik, papera ezabatzea (ikasturte bakoitzean 220.000 galdetegi baino gehiago jasotzen dira) eta, bestetik, inkestak biltzeko prozedura orokorra sinplifikatzea, besteak beste, ikastegietako idazkaritzetan gutun-azalen erregistroa bertan behera uztea.


Inkesta egiteko prozedura digitala erraza izango da, eGela bidez. Irakasleak **"Ikasleen iritziaren inkesta"** izeneko bloke bat aktibatuko du, dagoeneko konfiguratuta dagoena, eta, ikasleek blokea eta botoi bat eskuragarri izango dituzte ohiko galdetegia betetzeko. Ahalik eta erantzun gehien biltzeko, inkestatzeko prozedurak ikasleek galdetegia gelan bertan betetzea ezartzen du, gaur egun egiten den bezala, baina, gailu mugikorrek erabiliz.

Ikasleei eGela-n galdetegia betetzen laguntzeko, eskuliburu hau egin dugu non azaltzen den ze nolako urratsak eman behar diren Ikasleen iritziari buruzko inkesta egin ahal izateko.

Lehenik eta behin, LDAPa sartu gela birtualean.



Behin sartuta gela birtualean, eskuinaldean, irakasleek inkesta egin ahal izateko eratu dituzten blokeak agertu behar zaizkigu. Hurrengo adibidean, gela birtualak bi irakasle ditu eta, beraz, irakasle bakoitzaren izenekin bi bloke daude.



Galdetegia betetzeko, "Web bidezko inkesta-atzematea" aukeratu beharko dugu dagokion irakasleari buruz iritzia emateko.

The screenshot shows the eGela platform interface for the course 'Metrología Dimensional'. The main content area displays a survey titled 'Ikasleen iritziaren inkesta' by 'Irakaslea: NAIARA ORTEGA RODRIGUEZ'. A red box highlights the 'Web bidezko inkesta-atzematea' option. The interface includes a navigation menu on the left, a main content area, and a right sidebar with 'Edukien aitortpena' and 'NIRE IKASGELA BIRTUAL GUZTIETARAKO' sections.

Hurrengo irudian ikusten den bezala, eskuragarri izango dugu galdetegia betetzeko.

The screenshot shows the 'Irakaslan Ebaluatzeko Zerbitzua' (Teacher Evaluation Service) interface. At the top, there is a navigation menu with links for 'Profilak', 'Ikasketak', 'Egitura', 'Ikerketa', 'Unibertsitatera sartzeko bideak', 'Alorrak', 'Zerbitzuak', and 'Direktoria'. Below the navigation is a search bar with the text 'Bilatu...' and a dropdown menu for 'Gune hau'. The main content area is titled 'Ebaluazio Zerbitzua' and contains a sidebar with various links and a main section titled 'IRAKASLEEN IRAKAS-JARDUEK DUTEN IRITZIEKIN BURUZKO INKESTA'. The main section includes a progress indicator with steps 1 through 9, where step 1 is highlighted. Below the progress indicator, there is a heading 'ONGI ETORRI IRAKASLEEN IRAKAS-JARDUEK DUTEN IRITZIARI BURUZKO INKESTARA' and a large text block: 'eGelatik egindako online prozedura erabat anonimoa, gardena eta konfidentziala dela bermatzen du bertan inplikaturako alderdi guztientzat: ikasleak, irakasleak eta ebaluazio-zerbitzua.' Below this text, there is a paragraph: 'Inkestaren eginkizun nagusia da irakasleari laguntza ematea bere irakaskuntza-jardunari buruzko hausnarketa egin dezan, alderdi positiboak ezagutu eta hobetu daitezkeen alderdi pedagogikoak identifikatu. Emaitzak, bestalde, kontuan hartuko dira DOCENTIAZ programak araututako irakaskuntza-jardueraren ebaluazioan.' At the bottom of the main content area, there is a blue button labeled 'Hurrengoa' (Next), which is circled in red.

“Hurrengoa” botoia sakatuko dugu eta joango gara galdetegia betetzen orriz orri. Azkenik, “bidali” botoia sakatuko dugu.

Irakaslana Ebaluatzeko Zerbitzua

Profila | Ikasketak | Egitura | Ikerketa | Unibertsitatera sartzeko bideak | Alorrak | Zerbitzuak | Direktorioa

Bilatu...
Gune hau

UPV/EHU » Ebaluazio Zerbitzua » Kudeaketa arloak » Irakaskuntza-ikaskuntzari buruzko iritzia » Practicum
» Iritziak jasotzeko prozedura

Ebaluazio Zerbitzua

Informazio orokorra

- » Aurkezpena
- » Kontaktua eta kokapena
- » Langileak
- » Memoriak

Kudeaketa arloak

- » Docentiaz programa
- » Irakaskuntza-ikaskuntzari buruzko iritzia

IRAKASLEEN IRAKAS-JARDUERAZ IKASLEEK DUTEN IRITZIEN INKESTA

9

ESKERRIK ASKO ZURE LAGUNTZAGATIKI

Aurrekoa Bidali

OHARRA:

Inkestari erantzuteko momentuan intzidentziaren bat badago, izan ikasleek gailu mugikorrik ez daukatelako, izan sisteman arazoren bat dagoelako inkesta egiteko unean ikasgelan, eGelako inkesten blokea 24 orduz egongo da aktibo. Zentroak baditu ordenagailuak informatika gelan inkestari erantzun ahal izateko epe horretan.

ANONIMIZAZIOA


Irakasleen irakas-jardueraz ikasleek dute iritzitari buruzko inkestari dagokionez, UPV/EHUko Ebaluazio Zerbitzuak eta Kudeaketa Informatikarako Zentroak eGelatik egindako online prozedura erabat anonimoa, gardena eta konfidentziala dela bermatzen dute bertan inplikaturako alderdi guztientzat: ikasleak, irakasleak eta ebaluazio zerbitzua.

Hori horrela izanik, **EZINBESTEKOA** da parte-hartzaile bakoitza bere LDAParekin identifikatzea, pertsona bakar batek galdetegi bakarra betetzen duela eta galdetegiak taldeko ikasleek bete dituztela bermatzeko, eta ezin da, inola ere, iritzi zehatzik identifikatu parte-hartzaile jakin batzuekin.

Ikasleak galdetegiak betetzera eGelaren bidez ez bada sartzen, ikasleak bere Hash (datuen fluxuaren eskema ikusi) ez du izango, eta, emandako iritzia baztertuta izango da.

eGelaren BIDEZ ON-LINE EGITEKO INKESTA

Ikasleentzako galdetegi-datuen fluxua



(1) Irakasleak aktibatzen ditu eta ikasleei agertzen zaizkie.

(2) Galdetegira sartzeko ikasle bakoitzari *Hash* bat sortzen zaio, sarbidea formularioarekin lotzen duena eta aldaketak identifikatzen dituen.

(3) GAURera eramaten diren galdetegiaren datuak:

- Irakaslearen ID (zenbakizkoa)
- Ikasgelako ID (zenbakizkoa)
- Ikasturteko ID (alfanumerikoa, 20230_937_GAVD_20240_01 motakoa)
- Irakaslearen IPD (zenbakizkoa)
- Hash (\$2y\$10\$HSisVZkZ/bp3LHq/XVSGCuWYEOe6LZffsj/emXlrEo52KSdcKfKe mota bakarra)
- Galdetegiaren emaitzak

(4) Txostenak paperezko galdetegiarekin kontsultatzen diren berberak dira.

Irakaskuntza egoera jakin baten emaitzen txostena egiteko bakarrik hartuko dira kontuan irakaskuntzaren egoera horretan matrikulatutako ikaslearen erantzunak. Gainontzeko erantzunak baztertu egingo dira.

Ikasle bakoitzak erantzun bat baino gehiago ematen badu irakaskuntza-egoera bererako, bidalitako azken erantzuna grabatuko da.

